



2022/2023 denboraldia

## 4. ZIRKULARRA

### ORDUTEGIEN TAULA ETA EGUN ALDAKETAK

---

#### Partiden egutegiak

Federazio jarduera koordinatzeko eta hobetzeko, gutxienez 10 egun lehenago partiden ordutegiak erraztea iradokitzen zaie klubei.

Ordutegi horiek Federazioaren web orriko ordutegien aplikazioan sartu beharko dira **NAHITAEZ ASTELEHENERO GOIZEKO 08:30AK BAINO LEHEN.**

Aipaturiko betebeharra **hirugarren aldiz hausten bada**, indarreko diziplinazko araudietan ezarritakoaren arabera **zigortuko da.**

Infantilen eta kadeteen mailetako taldeek posible dute beraien partidak larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkariaren baimenik gabe. Gainontzeko mailek, hau da, **jubenilek eta afizionatuek, aurkariaren baimena beharko dute larunbatean 15:30ak baino lehenago jokatu nahi badute.**

Partiden ordutegien programazioak, **asteburu eta jaiegunetan, 9:00etatik 19:45era** bitartekoa izan behar du.

Partidak astegunetan eta lanegunetan jokatzen direnean, klub antolatzaileek honako ordutegi-tarte hauetan ezarriko dute norgehiagokak hasteko ordua:

- **Jubenil Mailara arte (hauek barne) partidak 18:30etik 20:00etara.**
- **Afizionatu Mailako partidak, 19:30etik 21:00etara.**

**Ordu-tarte horiek betetzea eskatuko da, aurkako taldea ados dagoenean izan ezik;** kasu horretan, idatziz bidali beharko da adostasuna, beti egiten den bezala.

2008ko ekainaren 28ko Batzar Nagusian iritsitako akordioaren arabera, partida jokatu behar duten klubien herrien arteko **distantzia kilometrikoa 50 km baino handiagoa bada**, partidaren hasierarako ordu-tarte bat ezarriko da: **goizeko 11:00etatik arratsaldeko 17:30etara, betiere aurreko paragrafoan jartzen duena errespetatuz.**



Partiden programazioa kudeatzerakoan ahalik eta arretarik handiena izatea eskatzen da; izan ere, klubak proposatutako **edozein ordutegi aldaketa asteleheneko 14:00ak baino beranduago egiten bada, AURKAKO TALDEAREN ADOSTASUNA eta EPAILEEN BATZORDEAREN BAIMENA beharko dira** nahitaez. Gogorarazi nahi da, partiden egunen eta ordutegien aldaketak eskatzeko egiten diren etengabeko eskariak ikusita (gehienak justifikaziorik gabekoak), **Gipuzkoako Epailen Batzordeak, Gipuzkoako Futbol Federazioaren babesarekin, ez duela baimenik emango, justifikatutako arrazoiengatik izan ezik, klubak hasiera batean bidalitako orduen eta egunen proposamena aldatzeko.**

Eskaera horiek partida jokatuko den asteko osteguneko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira, **ezinbesteko kasuetan edo ustekabeko kasuetan izan ezik.**

### **Partiden egun aldaketak**

Euskadiko Futbol Federakundeko Araudi Orokorrean azaltzen den **Lehiaketen III. Liburuko 4. ataleko 95 artikulua** hitzez hitz jaso dugu, bere garrantzia eta eragina kontuan izanda:


**"Dagokion Federakundeak, egoera bereziak ematen direla eta, eta jolastu behar duten bi klub edo K.E. etako batek eskatuta, bestearen baimenarekin, partidu konkretu bat aurreratu ala atzeratu dadila baimendu dezake, beti ere egutegi ofizialean ezarritako beste partiduen ordena aldatzen ez baldin bada, noski".**

Jokalari bat selekzio bateko partida ofizial batera deitzea nahikoa arrazoi da partida atzeratzeko, deitutako jokalararen klubak hala eskatuta.

Esandakoa bete dezazuen eskatzen dizuegu; ordutegia aurrez jakiteak federazioko estamentu guztien plangintza hobetzea ekarriko luke.

**Donostia, 2022ko abuztua**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Inigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General